# 131

# HIZTEGI BATUA

## *arriskatu - askatu*[1]

**arriskatu**, arriska, arriskatzen. *du* ad.
**arrisku**
  **arriskuan egon**
  **arriskuan ipini**
  **arriskuan izan**
  **arriskuan jarri**
**arriskualdi** iz.
**arriskugarri**
**arriskutsu**
**arritmia** iz. *Med.*
**arritmiko**
**arro** iz.: *Deba ibaiaren arroa.*
**arroa** iz. (pisu neurria): *hamabi arroako txerria.*
**arroaka** adlag.
**arroba** iz. h. **a bildua** (@ ikurraren izena).
**arrobatu**, arroba(tu), arrobatzen. *du* ad. *Ipar.* 'lapurtu, ebatsi, ostu'.
**arrobatzaile** iz. *Ipar. g.er.* 'lapurra; harraparia'.
**arrobatze** iz. *Ipar. g.er.* 'lapurreta'.
**arroda** iz. *Ipar. Zah.* 'gurpila'.
**arroila** iz. 1: *aitzineko egunetako euriek izugarrizko arroilak eginak zituzten bidexketan.* 2: *Irunberriko arroila.*
**arroitu** iz. *Naf.* 'hotsa, zarata; sesioa'.
**arroka**
**arrokarte** iz. *Ipar.* 'haitzartea'.
**arrokatsu**
**arrolaka** adlag. 'zabuka, balantzaka'.
**arroltze** iz. h. **arrautza.**
**arroltzopil** iz. h. **arrautzopil.**
**arrondizamendu** iz.
arront* e. **arrunt.**
**arropa**
**arropategi**
arropatoki* e. **arropategi.**
**arrosa**
  **arrosa-landare**
  **arrosa-leiho**
  **arrosa-lili**
  **arrosa-lore**
**arrosadi** iz. *Sin.* **arrosategi.**

[1] Arau honek osatu eta eguneratu egiten ditu 48. Arauan argitaratutako Hiztegi Batuko zerrendak, **arriskatua-askatu** tarteko hitzei dagokienez. Arau berria da, beraz, kontuan hartzekoa.

**arrosario**

**arrosario-belar** 'aski motza' (*Cynodon dactylon*).

**arrosategi** iz. *Sin.* **arrosadi.**
**arrosatu,** arrosa(tu), arrosatzen. *du* ad. *Ipar. Beh.* 'ureztatu'.
**arrosel** iz. *Pagellus centrodontus.*
arrosetoi* e. **arrosa-leiho.**
**arrosondo** iz. 'arrosa-landarea'.
**arrotz** 1 iz. eta izond. 'atzerritarra, atzerrikoa'; 'ezezaguna'. 2 iz. *g.g.er.* 'ostatuz hartzen den pertsona'.

**arrotz-etxe** *g.g.er.*
**arrotz-herri** *g.g.er.* 'atzerria'.

**arrotzaldi** iz. *g.g.er.* 'atzerrialdia, erbestealdia'.
arroxina* e. **erretxina.**
**arroz** iz. *Sin.* **irris.**

**arroz(-)esne**

**arroztasun**
**arroztegi** iz. 'etxegabeentzat eta izan ohi den ostatu doakoa'.
**arroztu,** arrotz/arroztu, arrozten. *da/du* ad.
arrubi* e. **arrabio.**
arrubio* e. **arrabio.**
arruda* e. **erruda.**
**arruket** iz. *Zub.* (uso mota bat).
**arrunda** iz. *Ipar. Zah.* h. **erronda.**
**arrunkeria**
**arrunki**
arrunkide* e. **kide, lagun.**
**arrunt**

**arruntean** adlag. 'eskuarki, gehienetan'.

**arruntasun**
**arrunter** izond. *Ipar. Zah.* 'arrunta'.
**arruntu,** arrunt(u), arruntzen. *da/du* ad. 'arrunt bihurtu'.
arruta 1* e. **erruda.**
**arruta 2** iz. 'bidaia bat egiteko (gehienetan itsasoan) markatzen den bidea'.
**arsaldo** iz. 'artaldea'.
**arta** iz. 'arreta, ardura'.

**arta eduki** *Zah.* 'arta izan'.
**arta hartu** 'arta izan'.
**arta izan** *du* ad.: *nitaz arta duzun Jainkoa.*

**artaberde** iz. *Sin.* **bazka-arto.**
artabero* e. **artobero.**
artabizar* e. **arto(-)bizar.**
**artaburu** iz. edo **arto(-)buru.**
**artadi** iz. 'artasoroa'.
**artadun** izond. 'arduraduna; arretatsua'.
artaduri* e. **artatsu, artadun.**
**artagabe** izond. 'arduragabea'.
**artagarau** iz. *Bizk.* 'artalea'.
**artaiztur** iz. *pl.* 'ardiak mozteko aizturrak'.
**artajorra** iz. edo **arto(-)jorra.**

**artajorran** adlag. 'artoa jorratzen'.

**artajorrai** iz. 'artoa jorratzeko aitzurra'.
**artajorratze**
artalanda* e. **arto(-)landa.**
artalasto* e. **arto(-)lasto.**
**artalde**
**artaldekeria**
**artale**
**artalor** iz. 'artasoroa'.

**artalore**
**artamendatu**, artamenda, artamendatzen. *du* ad. *Ipar.* 'gomendatu'.
**artamendu**
**artantzu** iz. 'ardi antzua'.
**artasoro**
**artatse** iz. *Lit.* 'argi-hastea'.
**artatsu** izond. *Ipar.* 'arretatsua, arduratsua': *andre artatsua zen hura!; esandakoaren egitera artatsu izan naiz.*
**artatsuki** adlag. *Ipar. Zah.* 'artoski'.
**artatu**, arta(tu), artatzen. *du* ad. *Ipar.*: *andre-serorak ditu elizak artatzen.*
**artatxe** iz. *Bizk.* 'artatxikia'.
**artatxiki**
**artatxori** iz. *Bizk.* 'txolarrea'.
artatza* e. **artotza.**
**artatzaile** iz.: *erien artatzailea.*
**artazi** iz. *pl. Sin.* **aiztur, guraize.**
**artazika** adlag. '(dantzako) artaziak eginez'.
**artazuriketa**
**artazuritze** iz. edo **arto(-)zuritze.**
**arte 1** postpos.: *bihar arte; zu isildu arte.*
  **arte guztian** postpos.: *orain arte guztian; lana bukatu arte guztian.*
  **arteraino**
**arte 2** iz. 'tartea, bitartea': *etxetik lantegirako arte horretan gertatua.*
  **arteetan** adlag. *Bizk.* 'bitartean'.
  **artetan** adlag. *Ipar.* 'batzuetan, noizbehinka'.
  **artetik** adlag. *Ipar.* 'bidenabar' (*artetik erran* esapidean erabiltzen da ia beti).
**arte 3** iz. 1 'amarrua'. 2 'trebetasuna'. 3 'ertia': *arte-ondarea.* 4 'animaliak harrapatzeko tresna'.
  **arte eder** *pl.*
  **arte grafiko** *pl.*
  **arte plastiko** *pl.*
**arte 4** iz. *Quercus ilex.*
**arte(a) hartu**
**artea(k) hartu** *Batez ere Bizk.*: *arteak hartu ezinik; eztabaidatzeko artea hartu.*
**artean** adlag.: *Europa(ren) eta Afrikaren artean; gauza bat beste biren artean jarri; bi aukeraren artean zalantzan; kanpotarren artean gaudenean; malko artean jaioak; zaude ni itzuli artean; artean jaio gabea zen; baina ordua ez zen artean bete; orduan guztia esango dut, baina artean ez.*
  **neure, bere... artean** *Heg.*
**artega** adlag.
artegai* e. **artelan.**
**artegatasun**
artegatsu* e. **artega.**
**artegatu**, artega(tu), artegatzen. *da/du* ad.
**artegi**
**artegintza**
arteino* e. **artio, arte.**
**arteka 1** iz. 'bi etxeren, hormaren eta abarren arteko tartea'.
**arteka 2** adlag. 'noizbehinka, batzuetan'.
  **arteka-marteka**: *arteka-marteka ahaztu egiten zaizkigu kontu hauek.*
**artekaketa** iz. *Teknol.*
**artekari**
**artekaritza**
**artekatu 1**, arteka(tu), artekatzen. *du* ad. 'tartekatu'.
**artekatu 2**, arteka(tu), artekatzen. *du* ad. *Teknol.*
**arteko** iz.
**artelan**
**artelatz** iz. *Quercus suber.*
**artelazki** iz. *Sin.* **kortxo.**
artemein* e. **aurtemein.**

artera* e. **arte.**
**arteragoko** izlag. *Bizk.* 'lehenagokoa'.
**arteria**
**arterial** izond. *Med.*
**arteriografia** iz. *Med.*
**arteriosklerosi** iz. *Med.*
**artesi** iz. *Gip.* eta *Naf.*
**artesitu 1**, artesi(tu), artesitzen. *da* ad. *Gip.* eta *Naf. Sin.* **arrakalatu.**
**artesitu 2** iz. *Gip.* eta *Naf. Sin.* **arrakala.**
artetsi* e. **erdietsi.**
**artetsu**
**artetu 1**, arte(tu), artetzen. *da/du* ad. *g.er.* 'artean jarri; bitarteko izan'.
**artetu 2**, arte(tu), artetzen. *da* ad. *g.er.* 'lasaitu, baretu'.
**artez** izond. 'zuzena': *biderik artezena aukeratu; artez eta zuzen erabiltzeko.*
**artezbide** iz. *g.er.*
**artezia** iz. 'trebetasuna'.
**artezilari** iz. h. **lehergailu-teknikari.**
**artezkari**
**artezkaritza**
**artezki 1** adlag. 'trebeki'.
**artezki 2** adlag. 'zuzenki'.
**arteztasun** iz. 'zuzentasuna'.
**arteztu**, artez(tu), artezten. *du* ad. 'zuzendu'.
**artifizial**
**artifizialki**
**artifizialtasun**
**artifizio**
**artifizios** izond. *Zah.*
**artifiziotsu** izond. *Zah.*
**artifiziozko** izlag.
**artiko** izond.: *Ozeano Artikoa.*
**artikulatu**, artikula, artikulatzen. *du* eta *da* ad. *Teknol., Hizkl.*
**artikulazio**
**artikulu**
**artikulugile**
**artile** iz.: *artilezko jertsea.*
artileria* e. **artilleria.**
**artillari**
**artilleria**
artilun* e. **eklipse.**
artino* e. **artio, arte.**
**artio** *Batez ere Ipar.* eta *Naf.* 'arte'.
**artiodaktilo** iz. *Zool.*
artirin* e. **arto(-)irin.**
**artisau** iz. *Sin.* **eskulangile** (*artisau* hitza berriki asmatua da).
**artisautza** iz. *Sin.* **eskulan, eskulangintza.**
**artista**
**artistiko**
**artixot** iz. h. **orburu.**
**artizar**
**artizki**
**artizkune** iz. *Gip. g.er.* 'ardiak jeizteko lekua'.
**arto**
    **arto(-)bihi** *Ipar.* 'artalea'.
    **arto(-)bizar**
    **arto(-)buru** edo **artaburu**
    **arto(-)irin**

**arto(-)jorra** edo **artajorra**
**arto(-)landa**
**arto(-)landare**
**arto(-)lasto**
**arto(-)makila**
**arto(-)zuritze** edo **artazuritze**
**bazka(-)arto** *Sin.* **artaberde.**
**artobeltz** iz. *Sin.* **suge-ilar.**
arto-berde* e. **artaberde.**
**artobero** iz.
**artobero-usain**
**artopil** 1 iz. 'arto-opila'. 2 izond. 'behar denean ere larritzen ez dena'.
**artos** izond. *Ipar. g.g.er.* 'artatsua'.
**artoski** adlag. *Ipar.* 'artaz, arduraz'.
**artotza** iz. *Bizk.* 'arto-saila'.
**artoxehe** iz. *Ipar.* 'artatxikia'.
**artritiko**
**artritis** iz. *Med.*
**artropodo**
**artrosi** iz. *Med.*
**artseniko** iz. *Kim.*
arturgi* e. **diamante.**
**arturratze** iz. *Lit.* 'argi-urratzea'.
artxibaketa* e. **artxibatze.**
**artxibarazi**, artxibaraz, artxibarazten. *dio* ad.
artxibari* e. **artxibozain.**
**artxibategi**
**artxibatu**, artxiba, artxibatzen. *du* ad.
**artxibatze**
**artxibo**
**artxibozain**
**artxiduke**
**artxidukesa**
**artxipelago** iz. 'uhartedia'.
**artxipote** iz. 'arabazozoa'.
artxipretra* e. **artzapez.**
**artxo** iz. *Bizk.* 'bildotsa'.
**artza** iz. 'bahea'.
**artzain** iz.: *artzain-makila*; *artzain-txabola.*
**artzain-joko**
**artzain-mutil** 'artzainaren laguntzailea'.
**artzain nagusi**
**Artzain On** *Erl.* 'Jesukristo'.
**artzain-txakur**
**artzain-zaku** *Capsella bursa-pastoris.*
**artzaingo**
**artzaintsa** iz. *Ipar.* 'andre artzaina'.
**artzaintza**
**artzakur**
**artzanor** iz. (ardi-txakur mota bat): *artzanorak handiak izaten dira.*
artzantza* e. **artzaintza.**
**artzapez**
**artzapez-barruti**
**artzapezgo**
**artzapezpiku**
**artzar** iz. *Ipar.* 'ardi zaharra'.
**artzarki** iz. *Ipar.* 'ardi zaharraren haragia'.

**artzatu**, artza(tu), artzatzen. *du* ad. *g.er.* 'bahetu'.
**artziprestazgo** iz. *Heg.* h. **artzapezgo, artzapez-barruti.**
**artzipreste** iz. *Heg.* h. **artzapez.**
**artzobispo** iz. h. **artzapezpiku.**
**asa** interj. *Ipar.*: *asa, zuti hadi!*
**asaba**
asaberri* e. **aberri.**
**asago** adlag. *Bizk.* 'urrun'.
**asagotu**, asago(tu), asagotzen. *da/du* ad. *Bizk.* 'urrundu'.
asai* e. **tuberkulosi.**
asaiatu* e. **saiatu.**
**asaldagaitz** izond.
**asaldagarri** izond.
**asaldarazi**, asaldaraz, asaldarazten. *du* ad.
**asaldari** izond. eta iz. h. **asaldatzaile.**
**asaldatu**, asalda, asaldatzen. *da/du* ad.
**asaldatzaile** izond. eta iz.
**asaldatze**
**asaldazio** iz. *Zah.* 'asaldua'.
**asaldu**
**asaldura** iz. *Ipar.* 'asaldua'.
asalto* e. **asaldu, eraso, oldarraldi**, etab.
asanblada* e. **batzar, biltzar.**
asanblea* e. **batzar, biltzar.**
**asaskaldi** iz. *Bizk.* 'atsedenaldia, lasaitasuna': *noizean behin ondo dago asaskaldi bat hartzea.*
**asaskatu**, asaska, asaskatzen. *da/du* ad. *Bizk.*
**asbesto** iz. *Sin.* **amianto.**
**ase 1**, asetzen. *da/du* ad.
 **ase-ase egin** *Heg.*
 **ase eta bete**: *Don Kixotek urdaila ase eta bete zuenean.*
 **ezin ase** iz. eta izond.
**ase 2** iz.: *lehengo asea, oraingo gosea.*
 **ase-goseka**: *ahal bezala bizi ziren, ase-goseka.*
 **asean** adlag.: *asean dagoenak lanerako kar gutxi; beti asean bizi diren kondeak.*
**asealdi**
**asearazi**, asearaz, asearazten. *du* ad.
**asebete 1**, asebetetzen. *da/du* ad.
**asebete 2** iz.
 **asebetean** adlag.: *ogia asebetean jango duzue.*
**asebide** iz. 'asetzeko bidea'.
**aseezin**
**aseezintasun**
**asegaitz** izond.
**asegarri** izond. eta iz.
**aseguratu**, asegura, aseguratzen. *du* ad.
**aseguratzaile**
**aseguru**
 **aseguru(-)artekari**
 **aseguru(-)etxe**
**asegurudun**
aseguru-konpainia* e. **aseguru(-)etxe.**
**aseka** iz. *Zub.* 'asebetea, betekada'.
**asekeria** iz. *Ipar.*
**aseki** adlag. *Zah.* 'ugari'.
**asele** iz. *g.er.* 'elezaharra'.
asentamendu* e. **kokagune, kokatze.**
**asentatu**, asenta, asentatzen. *du* ad. *Zah.* 'finkatu'.

**Asentsio 1** iz. *Sin.* **Igokunde, Salbatore.**
**asentsio 2** iz. *Artemisia absinthium.*
**asentsio-belar**
**asentu** iz. 'oinarria, zimendua, funtsa'.
**asepsia**
**aseptiko**
**asesiatu**, asesia, asesiatzen. *da/du* ad. *Ipar. g.er.* 'ase'.
asesinato* e. **erailketa.**
**asetasun**
asetu* e. **ase.**
**asetzaile**
**asetze**
**asexual** izond. 'sexugabea'.
**asfaltatu**, asfalta, asfaltatzen. *du* ad.
**asfalto**
**asfixia** iz. *Med.*
**ashgabatar** (herritarra).
**asiar**
asignatu* e. **esleitu, izendatu, eman, egokitu.**
asignatura* e. **ikasgai, irakasgai.**
asignazio* e. **esleipen, izendapen.**
**asimetria** iz.
**asimetriko** izond.
**asimilatu**, asimila, asimilatzen. *da/du* ad.
**asimilazio**
**asinkrono**
**asintota** iz. *Mat.*
**asiriar**
asistitu* e. 1 **lagundu.** 2 **etorri** (edo *joan, izan*).
**aska**
**askabide**
**askaera**
**askaezin**
**askagaitz**
**askaldu**, askal, askaltzen. 1 *du* ad. 'askaria jan'. 2 *da* ad. *Ipar.* 'gosaldu'.
**askapen**
**askarazi**, askaraz, askarazten. *du* ad.
**askari**
**askarite** iz. *Ipar.*
**askatasun**
**askatu**, aska, askatzen. *da/du* ad.

(Euskaltzaindiak, 2003ko urriaren 24an, Bilbon eta, azaroaren 28an;
Donostian, onartua)